

ahal izateko aukera emanaz. Eta, batez ere, gertakariaren giltza, pundurik, esaldirik edo hitzik garrantzitsuena, hau da, giltz egingo duena, bere tokian jartzen. Azkenean behar duena azkenerako gorde. Gertakariotan beretan ohartu gindezke hortaz, bertsolariak maiz egiten duten bezala, herriak berak kontatzean nola eramaten duen haria, azken azkenerako sorpresa gisa, harridura ahalik handiena izateko era aurkitu eta azaldu. Adibidez, 80. orrialdean, izenburutzat «Hiru belarridun erbia» jartzeaz ipui guzia ondatu du, azkenean hori esatean zegoenez ipuiaren grazia guztia.

Bada liburu hortan lehendik ezagutzen ez nuen hizkirimirik, baina lehendik nekizkienak ere berriz irakurriaz nere memoriara ekartzean irriparrerik aski izan dut. Lan hona egin du Elexpuruk baturantz jartzen.

Bestalde esan beharra dago umorearentzat beti dela garai ona. Bizitzea tokatu zaigun une honetan, zer esanik ere ez. Premiazkoa dugu eta ordu onean dator. Izan ere, plaentziar harek esaten zuen bezala: «Gizonarentzat debekatua egon behar zen umorerik eza».

J. San Martín

«*Intxaur azal baten barruan*» eta «*Eguberri amarauna*», Puerto de Santa María-tik.

Hori da azalean soil soilik dakarrena liburu honek. Egilea edo egileek bururik agertzen ez badute ere *Izuen gordelekuetan barrena* burutu zuenaren eskua ikusten da bertan. Denboraren neurria galdurik edo, ezin dezakegu ziurtatu zein urtetan idatzia den, baina 1983ko urtarrilaren 12koa du Aintzin solasa.

Bi zatitan dator, lehena hitz-laxoz eta bigarrena bertso librez, eta hala ere obra guzia zehar poesia nabari da.

Lehen partea, hitz-laxozkoa, sekuentziaz osatzen da: gogotazko bakarrizketatik zeldatik zeldarako elkarrizketak eta,

tarteka, eskuetan duen liburu bakarra mintzatuko da, Shakespeare-ren *Hamlet*, bertako pertsonaiak solas partaide direla. Presondegiko giroa dakar, abertzale iraultzale batzuen inguruan. Libertaterik eza, berez oinazezkoa bada ere, han funtzionarioiek presoei egiten dien gudu psikologikoa ez da hobe. Hortaz datoz liburuaren lehen orrialdeak, irakurketa izugarria eskainiz: «Akidura eta tristura sentitzen duzu, ea oraingoa nor dakarten zain. Akidura, tristura eta gorrotoa sentitzen duzu. Mindurik duzu gorputza eta, gainbizitzeko baino ez balitz ere, burrukan segitzeko beharraz pentsatzen duzu. Istiluetan ez sartzeko, amonak hainbeste aldiz esandako hura, farregarria egiten zaizu orain. Aurrekoak erori direneko zulora ez sartu zangoa, esaten zizon, eta zuk, amona eta atsotitzak maite arren, zeurea egin, zangoa aurreko guziak erori direneko zulora sartu alegia; non zauden baleki. Eta, hala ere, burrukan segitzeko eta gainbizitzeko beharra...»

Ez da hau Ivan Denisovich-en bizitzako egun bat, ez. Zeren haizea bera mugatuago duenez eta papera debekaturik, idazlearen ahalmek zentzunez baino mugatuagoak daude materialezko ukapenera. Horregatik, ezinera beharturik ere, pentsamena lanean berekikoetan. Indarrez ukatuko da ekintza, baina ideak hor jarraituko dute gizonaren baitan.

Irakurgai gogorra da, baina, hala ere, irakurgarri euskaldun batentzat, eta ezagutu beharrezkoa norpere herriagatik sufritzen duten anaien oihua: «gudatzen bagaituzte ez da oker gabiltzalako ez eta gaiztoak garelako, garelako baizik».

Handik irtetzeko ametsa, gauzarik opagarriena: «—Amets onak? Nik ihes egiten diat beti, ametsetan, eta beti harrapatzen niautek askatasuna ukitu orduko.»

Bigarren partean, metaforaz eta kontraesanez. Poesia absurdo horietakoa dirudi, ez itxura hutsez, baina egi garratza da:

*esaidazu poema hau
laket zaizun
ezen lan eskerga da ezer ezerako.*

Ez da izanen eskerga, ez ezer eza ere, baina ez zait laket. Laket ez zaidanez ezer sufrigarri, batez ere anaigandikorik.

Poeta egileak dionez, bere aitorenpenetan: «poema luze hau ez da ona agian», baina gauza berriak esaten ditu, Bordelek Donostiako gaztelutik eta Etxahunek galeretatik esan ez bezalakoak eta beste batzu geroago adierazi ez dituztenak. Ez dakit aski den, baina ez da gutti.

*inorekin mintzatzea debekaturik dago
ene buruarekin mintzatuko naiz soilik
baina isiltzeko agindu didate.*

*kantatzea ere debekaturik dago
baina ez dakite
poemak izkiriatzen ditugunik.*

Baina, zelda hotzetik ezin ezer berorik atera, alperrik naturaren indarrak deitu:

*izarrak suzkoak omen dira
baina ez naute berotuko*

Minezko kantak bihotzaren zartadarako.

Otsalar

JULIEN VINSON. — *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. (Volúmenes I y II). Con unas palabras sobre la presente edición de Luis Michelena. Edición: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» de la Excelentísima Diputación Foral de Guipúzcoa. San Sebastián, 1984.

Mitxelenak sarrerako hitzetan dionez, 1891. urtean Parisen argitaratu zen Vinson-en bibliografia honek ez du oraingo hau lehen birargitaratzea. Holanda-ko Oosterhout-en 1970ean Anthropological Publications-ek birargitaratu zuen lehen aldiz